



2002/07/04ko prentsa-oharra

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)**2002ko maiatza****EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA %1,9 JAITSI
ZEN 2002KO MAIATZEAN**

***Petrolio* finntzea (%-42,7) eta ateratze-industriak (%-32,5) atalen jaitsiera nabarmenak eragina izan dute indize orokorrean**

2002ko maiatzean, %1,9 jaitsi zen Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea, aurreko urteko hil beraren aldean. *Petrolio finntzea* (%-42,7) eta *ateratze-industriak* (%-32,5) atalen jaitsiera handiek markatu dute Industri Produkzioaren Indize Orokorraren joera maiatzean. Datu horiekin, urteko lehenengo bost hilabeteetako tasa metatuak %0,2ren gehikuntza lortu du, aurreko urteko aldi beraren aldean, lanegunen balio homogeneotan.

2002ko maiatzean, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *elikagai-industria* (%10,1), *garraio-materiala* (%6,1), *ehungintza eta jantzigintza* (%5,0), *bestelako manufaktura-industriak* (%4,6), *papera, argitalpena eta grafikoak* (%3,4), eta *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%3,4).

Urte arteko hazkunde-tasa nabarmen negatiboak izan dituzten sektoreen artean, arestian aipatuak agertzen dira: *petrolio finntzea* (%-42,7) eta *ateratze-industriak* (%-32,5). Halaber, aldakuntza negatiboak izan dituzte maiatzean honako sektore hauek: *ez-metalezko industria* (%-10,5), *metalgintza eta metalezko gaiak* (%-6,6) eta *makineria* (%-4,2), besteak beste.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2002ko maiatzean igo egin da *kontsumo-ondasunen* (%2,7) indizea, eta jatsi *ekipo-ondasunei* (%-3,2) eta *bitarteko ondasunei* dagozkienak (%-1,7).

Industri Produkzioaren Indize Orokorraren portaera intentsitate desberdinekoa izan da hiru herrialdeetan, baina jaitsi egin da horietan guztietan: Araban (%-1,0), Gipuzkoan (%-1,2) eta Bizkaian (%-2,9).

Taula: 2002ko MAIATZA. Hazkunde-tasa (%). Industri Produkzioaren Indizea. Euskal AE.

Azalpena	Aurreko urteko hil beraren aldean	Datu zuzenduak, aurreko urteko hil beraren aldean (*)	2001eko urtarril-maiatzeko tasa metatua(*)	2002ko urtarril-maiatzeko tasa metatua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	-1,9	-1,9	-0,9	0,2
Araba	-1,0	-1,0	-1,6	1,1
Bizkaia	-2,9	-3,0	-1,9	0,2
Gipuzkoa	-1,2	-1,2	0,5	-0,3
Indizeak sektore-zatiduraka				
- Euskal AE:				
Ateratze-industriak	-32,5	-32,5	10,5	-5,4
Manufaktura-industria	-2,2	-2,2	-1,1	-0,1
Energia elektrikoa, gasa eta ura	3,4	3,4	-0,4	4,0
Indizeak helburu ekonomikoka - Euskal AE:				
Bitarteko ondasunak	-1,7	-1,7	1,0	-0,4
Kontsumo-ondasunak	2,7	2,6	-2,5	3,7
Inbertsio-ondasunak	-3,2	-3,2	-4,1	0,1

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: Eustat

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel: 945-01 75 00 Fax: 945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso
	Tel: 945-01 75 14 Fax: 945-01 75 01
	Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es